

HIZKUNTZA INDIGENAK AMIA LURRA ZAINTZEN



Zer da kultura?

Garabide Elkarteak 2018ko udazkenean antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroan 20 indigenek galdera potolo horri erantzun zioten. Bakoitzak bere herriaren kultura sinbolizatzen zuen irudi eta testu bana sortu zuen eta horrela kultura ordezkatzeko poemak, ipuiak eta mitoak azaleratu ziren; animaliak, zuhaitzak, mendiak, barazkiak... kulturaren oinarrian agertu ziren.

Kultura amalurrean oinarrituta

Kultura indigena hauek naturarekin bat egiten duen mundu ikuskera partekatzen dute, amalurrekiko konexioan eta errespetuan oinarrituta.

Elkar-truke horretan jaio da ekoizpen xume hau, herri txikioek elkarren berri izan dezagun eta gure arteko sarea ehundu ditzagun, gure hizkuntzen, kulturen eta identitateen bizi iraupenerako.

Hizkuntza lankidetzan, indigenen testigantzak zuzenean

Erakusketa honek euskal herritarrei bi kontu jakinaraztea du helburutzat. Batetik, kooperazio linguistikoa nola ulertzen dugun adieraztea, zein balio, zein garrantzia eta zein aukera dituen. Bestetik, isilarazitako herri indigenetara hurreratzea, euren sentipenak edaeta sentiberatasunak ezagutu ditzagun.

Ikusleak hainbat ipuintxo ditu paneletan. Kolibriaren mitoa izenekoa hizkuntza lankidetzaren saretearen beharra azaltzen da; hurrengoetan, maputxe, guarani, huni kuĩ, kichwa, nasa, q'eqchi', k'iche', kaqchikel, mayata'an, nawat eta euskal herrien elezaharrak; eta, azkenik, euskal elezaharreen hizkuntza kooperazioaren aldarrikapena.

Untsa izan!



ANTOLATZAILEAK




LAGUNTZAILEAK



MUNDUA IKUSTEKO


11 IKUSPEGI, 11 KULTURA, 11 HIZKUNTZA



HIZKUNTZA INDIGENAK



AMA LURRA ZAINTZEN



HIZKUNTZA LANKIDETZA IRAUNKORTASUNAREN BIDEAN



Garapen iraunkor eta orekaturako eragile ekonomiko eta ingurumenaz gain, dimentsio kultural eta soziala kontuan hartzea beharrezkoa da eta kulturaren muina eta transmisio bidea den hizkuntza ere.

Hizkuntzen eta kulturen desagertzea zuzenean dago lotuta egiturazko pobreziaekin. Hizkuntza diskriminazioa desberdintasunen eragilea da herrialde txiro askotan, eta egiturazko pobrezia desagerrarazteko desberdintasunak eragiten dituzten kausetan eragin beharra dago.

Hizkuntza lankidetzak herrien arteko elkartrukea eta elkarlana hartzen ditu oinarritzat, asistentzialismoa gaindituz esperientzien elkartrukearen bidez, eta giza eskubideak, ekitatea, jasagarritasuna eta parte hartze hatsarretatik abiatzen da.

Hizkuntza eta identitatearen biziberritzea mendeetan zehar baztertuak eta gutxietsiak izan diren herriak ahaldu eta komunitate gisa autoestima berreskuratzeko bidea da.



Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren 2030 Agendak eta bere 17 helburuek alde batera uzten du hizkuntzen alorra eta eskas hartu du kontuan kultura. Agendaren irakurketa kritiko eta eraikitzailetik abiatuta eta hizkuntza lankidetzatik jasotako eskarmentuaren ondorioz Easo politeknikoak eta UPV-EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren eskutik **17+1 helburua** proposatu dute, hau da, garapen iraunkorra bideratzeko Hizkuntza aniztasuna bermetzea ezinbesteko helburua izan behar dela aldarrikatu dute.



Garabide Elkartea

Lankidetzaren alorrean munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen ditugu, euskararen biziberritze prozesuan bilduriko ezagutza, estrategiak eta metodologiak partekatuz. Lankidetzaren guretzat norabide biko zubia da, elkartrukean eskaintzeko eta jasotzeko, bakoitzak bere ezagutza eta esperientziatik. Formazio eta ikastaroetan oinarritzen da gure jardun nagusia.

HELBURUAK

- Garapen bidean dauden herrien hizkuntza eta kultura biziberritze, euskal kulturaren garapenaren esperientzian bilduriko ezagutza partekatzea.
- Lankidetzaren proiektuak hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren alorrean gauzatzea eta herrien arteko sareak ehuntzea.
- Euskararen biziberritzean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuarekin beren esperientzia partekatu dezaten sustatzea.
- Euskaldunok beste herriekin elkartrukean ezagutza eta esperientzia berriak jasotzea.

UPV-EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra

Hizkuntzen gaien espezializatuta dagoen UPV/EHUko UNESCO Katedra bat da, UNITWIN sarearen barnean dagonena. Katedrak hizkuntza eta kultura aberastasuna ditu ikusmiran, arreta jarrita bereziki, galtzeko zorian egon daitezkeen hizkuntza gutxitu eta zaugarrietan.

HELBURUAK

- Bertako eta kanpoko hizkuntza ondarea aztertu, deskribatu eta ezagutaraztea Galzorian dauden hizkuntza gutxitu eta zaugarrien gaineko ezagutza zabaltzea eta prestakuntza eta ikerketa bultzatzea.
- Bereziki hizkuntza gutxitua ardatz hartzen duen hezkuntza eleaniztunaren ezagutza eta baloreak ezagutu, eta aldi berean, prestakuntza inklusibo eta justua ziurtatzeko oinarriak ezagutaraztea.
- Hizkuntza ondarearen inguruan lan egiten duten nazioarteko erakundeen arteko elkarlana sustatzea eta indartzea, eta sare horiekin batera ekimenak garatzea.
- Euskal Herriko hizkuntza eta kultur ondarea bere aniztasunean ezagutu, eta kudeaketa egokienak indartze aldera, ikerketak eta formazio ekimenak bultzatzea.



KOLIBRIAREN MITOA



Diotenez, basoa sutan desegiten ari zen, eta animalia guztiak ere sutan galtzeko arriskuan zeuden, baina ez zuten erreakzionatzen, hondamendiari begira zeuden. Kolibri txikiak, oso kezkatuak, eta sugarrei aurre eginez, erreka joan eta bere moko txikiarekin ur pixka bat hartu eta sutara botatzen zuten. Jaguarrak hau ikustean esan zuten: -zertan zabilta kolibri txiki?-. Honek arnasa hartu eta erantzun zion: -sua itzali nahian nabil-. Jaguarrak esan zion ez zuela lortuko. Eta kolibriak, -ni nire parte ari naiz, denok berdinekin egingo bagenu, bakoitzak berea egingo balu, sua itzaltzea lortuko genuke-.

Jatorrizko kultura bakoitzak aurre egiten dio suari bere hizkuntza, bere identitatearen oinarria, desagertu ez dadin. Jatorrizko hizkuntza bakoitzean esaten den hitz

bakoitza kolibriaren ur tanta bat da, eta esperantza ematen digu gure ama lurra desegiten ari den suteari aurre egiteko.

Huni Kuĩ, Brasilgo Amazoniako indigenak, Kolonbiako Nasa herria, Ipar Afrikako Amazighak, Euskal Herria, Kurdoak, Nawatak, K'iche'tarrak eta Q'eqchi'tarrak, Guaraniak, Kichwak elkartu gara, partekatu dugu, ehundu dugu, bakoitzak bere parte ari egiten!

*Tuĩ Huni Kuĩ eta Mikel Mendizabal,
Brasileko mito herrikoien egokitzapena.*



EKOLOGIA INDIGENA

NATURA ETA KULTURA UZTARTZEN



6.

Gakoa ez da zernolako lurra uzten diegun gure sema-alabei, baizik eta zer nolako seme-alabak uzten dizkiogun gure lurrrari.

(Bonifacio Iturbide, nawat herria, 2013)

2.

Ecologia Indígena é nossa arma, não para matar pessoas, é nosso documento para defender a nossa terra demarcada, para não perder a nossa cultura.

(França Pinheiro Tui, huni Kui, 1997)

1.

Kosmobisio indigenan gizakiok naturaren kudeatzaileak gara, eta ez bere jabeak.

Natura ez da gizakiona eta lurreko bizidunak gure senideak dira.

Natura ezin da aberasteko ustiatu.

Gizakiok natura eta gaineko bizidun senideak zaindu egin behar ditugu, gu geu ere naturaren uzta baikara.

(Estes, lakota-sioux herria, 2020)

7.

Mundua aldatu baino, mundu askok kabida duten mundua eraiki behar da.

(Zapatista mugimendua)

4.

Gure jatorriaren historiaren berreskuratzearen garrantzia eta beharraz galdetzea bakarrik egin daiteke iragana ulertuta oraina ulertzeko eta etorkizuna eraikitzeko beharrezkoa da gure jatorrizko historiaren berreskuratzearen garrantziaz jabetzea.

(Abadio Green Manibinigdiginya, gunadule herria, 2011)

3.

Praktika espiritulak jatorrizko hizkuntza eta kulturen biziberritze prozesuen funtsa dira.

(Yukwe Péte, nasa herria, 2013)

5.

Gure harrespilak hiltzat jotzen izan ditugun gauzak hitzegiten digutela pentsarazten digu. Zeren hildakoak heuren ere lekuz eta espreioz aldatzen dira bizidunok pentsatzeko modua aldatzean, eta geure begirareko eta galdekatzeko gure ideiak metodoak berritzean.

(Jorge Oteiza, euskal herria, 1963)

3.

Diseases caused by pollution were responsible for an estimated 9 million premature deaths in 2015. Pandemics will emerge more often, spread more rapidly, kill more people, and affect the global economy with more devastating impact than ever before.

(The Lancet, 2017, 2020)

2.

Biodibertsitatearen krisiari begiratzuz gero, ikus daiteke galzorian dauden espezieen zerrenda izugarria dela, deskribaturik dauden espezieen %27a mehatxatua baitago. Ondorioz, lurra historiako seigarren iraungipen aroan murgildu dela esaten da.

(IUCN, 2020, Kolbert, 2015)

1.

Hizkuntzak aurrekaririk ez duen abiaduran ari dira desagertzen, eta haiekin hizkuntza horietan bilduriko jakituria eta baliabideak.

6.000 hizkuntzen erdia galtzeko mehatxupean dago, 3.000 hizkuntza inguru, gehienak hizkuntza indigenak

(Posey, 1999, Uranga, 2013)

5.


Kolonbiako bake akordioa 2016 gertatu zenetik, Cauca eskualdean talde armatu desberdinek, 105 indigena, erhail dituzte.

(Cric, 2020)

4.

Kolonialismoak herri indigenak deuseztatze bidea hartu zuen, eta gaurko neokolonialismoak natura, gizakiak eta bizidun guztiak diru iturri eta merkantzia bihurtu ditu, aberastasun interesatuak metatzeko.

(Estes, Lakota-Sioux herria, 2020)



MAPUTXE HERRIA

MAPUZINGLIN HIZKUNTZA



QR

TESTUA: SERGIO MARINAO
IRUDIA: ANA LLAUPI

MAPUTXE HERRIA · Mapuzugun hizkuntza

Etniakideak	1.000.000 inguru. Hiztunak %20.
Non	Txilen Wallmapun eta Argentinan Patagonian.
Hizkuntzaren egoera	Arrisku kritikoan (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Mapuzuguletuaïn-ek helduei mapuzugun hizkuntza erakusteko eskolak eta barnetegiak antolatzen ditu: www.mapuzuguletuaïn.cl
Mari mari kom pu che! (kaixo guztio!), Chaltu may! (eskerrik asko!)	



ARAUKARIA

Araukaria oso landare zaharra da, maputxe lurraldeko mendi gailurretan bizi dena. Milaka urte bizi izan da bertako zaharrenek esaten dutenez. Oso ederra da bere enborra eta baita bere hostotza ere.

Araukaria landareak belaunaldi asko ikusi ditu, eta badaki nola bizi ziren gure arbasoak; ondo ezagutzen ditu *Koyagtun*, *nuillatun* eta *malon* zeremoniak. Maputxeak bezala bizirik dagoen historia da. Akabatu eta desagerrarazten bagaituzte araukaria ere hil egingo da. Esplotatu egin nahi dute, baina gure hizkuntza mapuzunguna bizirik dirauen bitartean bere izpiritu indartsuarekin komunikatuko gara.

Maputxe gazteak harriturik geratzen dira hain zaharra den landare honekin, eta horregatik babesten dute hainbesteko indarrarekin. Maputxeak dirauen bitartean *pewena*, araukaria ere izango da eta elkarren indarrak batuko dituzte. Horregatik ez dira desagertuko, elkarrekin iraungo dute. Gauza asko ditugu babesteko eta horrela irabaziko dugu.

Gure mendietan bada oraindik indarra duen izpiritua, eta horregatik borrokan jarraituko dugu.

Hamar aldiz irabaziko dugu!
Beste behin!
Hamar aldiz irabaziko dugu!

PEWEN


Ume kuifi anumka. Txemki wenu marvidantu winkul meu, mapuche mapu meu futxa ke kuifi ñi mulerkefulo: feipi kigun Ti futa keche kañi ume as anumka gen.

Pewen anumka may kimfay pefuy ka ñi futra ke zugu ni y kuife mogen rupan, makon, eeoyargtun, ngillatun. Petu epuñpele; muna upa kontugekefuy tañi katxukalal. Petu mulelu mapuche ka mapu zugu newigin feimu tain petu nutxamkaleyin tañi nerven pullü gen. Tañi fun meo petu iyael eluneinmu, we ke che perrimontu eyu tpñi petu mogelen.

Feimu ume inkagekiy petu mulele mapuche pewn ka mukay / newentujeayin feimu koy txer fenten mogen katxukilpe tain mogen: Putxun zugu petu kupaley wedu ka wewagin.

Tañi marviizantu meu kuifi futxa ke pullü txekayawi feimu niegin newen tain amuleal tain wichan.

Mari chi wew
ka kiñe
Mari chi wew w w




GUARANI HERRIA AVAÑE'Ē HIZKUNTZA



QR **TESTUA: FÉLIX TARUIRE**
IRUDIA: FRANCISCA SÁNCHEZ

GUARANI HERRIA · Avañe'ë hizkuntza	
Etniakideak	1.000.000 inguru. Hiztunak %20.
Non	Bolivian 150.000, guztira 7 milioi. Hiztunak %50.
Hizkuntzaren egoera	Arriskuan (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Asamblea del Pueblo Guaraní https://www.charagua.gob.bo/apg/
Puama! (egun on!), Yasoropai! (eskerrik asko!)	



KARAPEPOA

Diotenez, egun batean, *Ñaderu Tüpa* agertu omen zitzaion andre bati ametsetan zebilela suge itxurarekin, eta ehun oso berezi bat ehuntzen erakutsi omen zion. Amets horretan komunitatearen jatorria erakutsi omen zion, eta zerutik datozen ezagutzak nahiz lurrean agertzen direnak jakinarazi omen zizkion. Horrela sortu zen karapepoa, irudiak posizio ezberdinetan lotzen dituen, batzuetan erronbo irudiak eginez eta, bestetan, bidea eginez, sugearen azalean ikusten den bezala. *Ñaderu Tüpa*k andrea aukeratu zuen ezagutza eta jakinduria transmititu zezan hizkuntza eta artearen bidez.

Karapepoak esanahi filosofikoa, politikoa eta ideologikoa dauka; guarani kulturaren pentsamendu politikoa adierazten du, baita bere antolamendu moldea ere. Bertan irudikatzen da natura eta izpirituaren munduen arteko erlazioa nolakoa den, familiaren erlazioa lurrarekin, unibertsoa, antolamendua. Guzti hori, eten gabe lurraren berreraikitzea eta gaitzik gabeko lurraren bilaketa amesten.

Karapepoa adierazpide artistiko eta poetikoa da, gure arbasoek utzitakoa, bere bitartez errealitatearekin elkartzeko modua bila dezagun, beti ere gu geu izateari utzi gabe, besteengana hurreratu gaitezen, gure ezberdinak direnengana, integrazio zubiak eraikiz, eta diskriminazioaren eta menderakuntzaren ibaietan ito ez gaitezen.

KARAPEPO


Arakaete ndaye *Ñaderu Tüpa* oychauka kuñape, mboirami ipaupe, omboe omaepöva jembiapore, ërei mbaeti omboemboeiño, omee chupe arakua añetetegüevae jokope omboe opaete mbaembae oasa têtaretarupivae jare arakua ivategui araregua ouvae jare oyekua ivipevae. Jökoraí oychauka kuñape Karapepo iä tembiapo omopöra kavi jare oipova jese mboke, pike jare tape oechaka chupe kuae mboi ikupere oyekuarami.

Ñandekarapepore oimeko oipöva arakua tuichaguevae jare ñanoi kuaepe Ararendru, mbaepuere, mborokuaiete ñandeve peguara jare ñanderetareta peguara jare jeivi kiraitara yaiko ñandeivipe ñanderëtarareta ndive.

Karapepope yaecha ñeepora tembiapo ikavigue jökope oychauka ñandeve tape ikavi ñande ramii reta oeyavae jare ñeemboe yaiko kavi vaëra ñaneirureta ndive.

Kuae tembiapo karapepo jeevae oimeko guinoi mbaembae ñanderekoregua jarevi yaikatu ñamongeta kuae tembiapore oyekuatia oivae ñandepueretako ñamotenonde têtaretape mbaembaeko oime ou ñanerenondevae. Jökoraíñovi kuae tembiapo oikuauka ñandeve kiraiko yoguirekose ñandeipireta. Jaeramoko añaverupi opae ore tairera roikovae roipotavi oreipiretarami roiko IYAMBAE jokuaeko roeka roiko añaverupi, jokuaeramo mburuvichareta orembou pekoti roñemboevaerä kiraiko pevae pekuakua peo peiko.

Yasoropai.



HUNI KUĨ
HERRIA

HÄTXA KUĨ
HIZKUNTZA




QR

TESTUA ETA IRUDIA:
TUÏ HUNI KUÏ

HUNI KUÏ HERRIA · Hätxa kuĩ hizkuntza

Etniakideak	4.500. Hiztunak gehienak.
Non	Brasilgo Acren eta Perun.
Hizkuntzaren egoera	Arriskuan (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	https://pib.socioambiental.org/es/Povo:Huni_Kuin_(Kaxinaw%C3%A1)#Localizaci.C3.B3n

Shaba una numamé! (egun on!), Pe haira ki! (eskerrik asko!)



SHUNUÂ IZPIRITUAREN ARBOLA

Shunuâ izpirituaren arbola da, alegia sorgindua, izpirituak bizi diren lekua. Zuhaitz hori, Amazoniako zuhaitzik handiena denez errespetatzen den arbola da. Inor ezin da pasa bere ondotik arratsaldean. Arratsaldean bere ondotik pasatzen bazara izpiritu gaiztoak zerbait egin ahal dizu. Beste gauza bat da ezin dela bere ondotik haur Jaioberri batekin pasa, izan ere, pasa ezkerro haurraren izpiritua harrapa dezake eta oso oso goian gorde.

Han goitik haurraren izpiritua ezin da itzuli, eta xamanak esku hartzen ez badu haurra hil egingo da. Xamanak badakizki otoitzak, hosto sakratuarekin lausotze bat egiten du, eta haurraren izpiritua bilatzen du.

Gauza bera gerta daiteke pertsona helduekin. Horregatik beldurra diogu arbola horri.


Jendeak zeremonia espiritualak egiten ditu edari sakratua hartuz xamanarekin batera izpirituekin hitz egin ahal izateko, edariaren indarraren bitartez.

SHUNUÂ HI YUXIBU

Shunuâ hi yuxibuki, yuxibu xarabu haki hiwe abuki, miseki yuxiburã, barikayarã trarũke timaki mĩ tarũkearã yuxibũ mia mabu betsawatiruki. Haska inũ yume kaĩ bena ha namã nimatimaki. Mĩ haskaurã yumẽ yuxĩ yuxibũ iwearã habia pashuibestitũ akaki iwekinã, ha menimarã ana mĩ yume mĩ uĩ nakamaki. Iwekinã unu hawẽ bemiki tsaũ miski, haskawashũ butekatsi, haskawakẽ shũ akĩ bekuĩ bitã miski.

Haskakẽ nũ haki mese miski, shunã nikenã.

Eskatianã hanamãshũ nixi pae sheamisbuki, yusibube hätxakatsirã pashui xarabunã.



RUNA: INDARRA ETA JAKINDURIAREKIN DIHARDUEN IZAKIA

Runaren bizitza gozoa eta zoriontsua da. Runaren hizkuntzak mintzatzen ditugunean *Pachamama* eta *Allpamamaren* hitzak eta kantu sakratuak entzun ditzakegu. Apuekin hitz egiten dugunean dena ulertzen dugu, bihotzetik hitz egiten dugulako.

Sendatu eta konpondu ahal duzun guztia; oparitu egizkiguzu pentsamendu onak, eta bihotz on eta gozoa.

Aita *Imbabura*, Ama *Katakaxi*, maite zaituztet eta bihotzez eskerrak ematen dizkizuet. Bide askotan nabil, eta nire bihotzaren leku epel batean eramaten zaituztet. Zuekin batera ahal bezain ondo bizitzeko, ahal ditudan gauzarik ederrenak jasotzen nabil: ideiak, erakuspenak, esperientziak. Sendatu min guztiak!

Asko ikasi dut *runaren* bizitza hemen eraiki eta gauzatzeko.

RUNA KAWSAY

Runa Kawsayka, mishki kawsaymi kan. Alli kawsay, kushimi kan. Runa shimikunata rimashpaka Allpamamapak, Pacha mamapak rimaykunata, hayllikunata hamutaytami ushanchik.


Apukkanawan rimashpaka tukuylla hamutanami kan, shunkuwan tukuytami rikuyta ushanchik.

Alli yuyayta, alli shunkuta, alli aychata kachun, tukuylla allichipanki, tukuylla allichipanki. Tkukuylla hampipanki. Chashna kachun.

Tayta Ymbabura, Kutacachi mamitaku tukuy shunkuwan yupaychapani, tukuy shunkuwan huyapani purihupami.

Kinkinkunawan sumaktapacha kawasankapak, alli yuyayku mato kapihuni, alli kawasayto wasichinkapak, kushupacha kawasankapak.

Tukuy nanaykumata karusayto haryman shamuchun, tukuylla kushi kawsankapak.



KICHWA HERRIA

RUNA SHIMI HIZKUNTZA



QR **EGILEAK:**
SISA TARINI, XIMENA FLOREZ

KICHWA HERRIA · Runa shimi hizkuntza	
Etniakideak	4 milioi Ekuadorren, 50.000 Kolonbian. Hiztunak 500.000-800.000 tartean.
Non	Ekuadorreko Andeetan eta Amazonian. Kolonbiako hego-mendebalean.
Hizkuntzaren egoera	Arriskuan (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	AJKI elkartearen Iluman irratia https://radios.com.ec/iluman-otavalo/ eta Wiñay Kawsay aldizkaria, kichwa.net webgunea
Alli puncha! (egun on!), Yupaichani! (eskerrik asko!)	



KICHWA KULTURA ETA BIKOIZTASUNA

Kichwa kulturaren gizona eta emakumea beti elkarrekin daude. Hau ikus daiteke Andeetako sendabidearen praktikan, non landareak, mendiak, eguzkia eta ilargia, haizea eta naturaren izpiritu guztiak emakume eta gizon diren, eta beti islatzen duten bikoiztasuna eta elkar osagarritasuna.


KICHWA KAWSAY/KARI / WARMI

Kichwa runa kawsaypika maymantami karipash warmipash pakta rikurin. Chaytami hampi yachaypimi ashtawan rikuyta ushanchik, hampi yurakunapi rikushpaka kari warmita charinchik shinashata urku taytapi, urku mamapi, killa mamapi, inti taytapi, wayrapipash tukuytami kari warmi pakta kanchik iskatari mapipash pakta llamkanchik.

Kichwa runa kawsaypika shinami sumak kawasayta rikuchinchik.



Cristina Escué



NASA HERRIA NASA YIWE HIZKUNTZA



GURE HERRIKO SU SAKRATUAREN ONDOAN

Españiarrek gure lurraldea bereganatu aurretik, Abya Yalako (Amerikako) jatorrizko herriek bagenituen gure kulturak eta izpiritualtasunak. Su sakratuaren gunea (tulpa) gure kulturaren eta identitatearen bizi iraupenerako oinarrietako bat izan da. Tulpan kultura zaintzeko nagusien gogoetak ehuntzen dira, hor baitago herri legez egiten gaituen izaera.


Etiketetik izendatu daiteke nasa herriaren kosmobisioa, hiru oinarriak gogoan izanik, suaren argia, hitza eta oroimena. Guzti hori jatorritik datorriguna, ohiturak, herria, lurraldea, kosmobisioa eta gure hizkuntza.

KWE'SX KIWE IPX KWET PEKU'J

Nasa üus kiwe jinxi, txaanxu' ipx kwetuh tha'w kwe'sx pëhnaçxa piyana u'jwe' nasana'w jinxiisa' ipxkweth tekhweth ji'pha' txi' khweethnxi ksusnxi txi' üuste jxuun u'jnxi nmehte uma tutxhuh vxyaanxijuy: dudte nxuunxi, nasawe'sx üus kiwewejxaa txa'wnxuusa' txi' peey we'wenxi'.

QR **EGILEAK:**
CRISTINA ESCUÉ, HUBER CASTRO

NASA HERRIA · Nasa yuwe hizkuntza	
Etniakideak	200.000-400.000 artean. Hiztunak %50, gutxi gorabehera.
Non	Kolonbiako Cauca eta inguruetan.
Hizkuntzaren egoera	Arrisku larrian (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Çxhab Wala Kiwe erakundearen atpuçxa (hizkuntza sustatzaile) taldearen Kwesx yuwe yat (helduei eskola irakasteko ikastegia) eta Wasakkwewe'sx eskolak (murgilketa eredua) http://www.nasayuwe.cedic.edu.co
Ma'kwe pe'th! (nola zaudete goizean!), Wala weçxath! (asko eskertzen dut!)	



Huber Castro

ELEZAHARREN LURRALDEA

Nasa izaeran, lurralde zentzuaren garapena bere jaiotzaren testuinguruaren arabera da. Etxetik ateratzen den hari gidariak, zilbor heste eran, nasa gizakiaren gogoeten eta ezagutzen garapena irudikatzen du.


Hari hori marraztu ditugun eiteekin ehuntzen da: eguzkia, ilargia, su berdea, mendi elurtua, lakua, ortzadarra, zuhaitzak. Hori guztiak *terrigramaren* barruan kokatzen dira.

Nasa gizakiak bere inguruan ezagutzen dituen lehenengo elementuak dira. Terrigramaren egile legez, *Nxadxiwe* (mendi elurtua) lurraldekoa baita, horrela adierazten du bere irudia.

ÜUS NXAAK PNAASA'S KAAJIYU'JN

Nasa fxi'zenxi' kiwe na'wte walasa', txahtha'w ja'da üus yaatçx pnaasa's ji'puna u'jwe'. Aça' ayte uyu'tha'wna' Nxadxtasxkiweka' le'çxkwe maa'ne' kiwe'su' üuste uyna ya' wala txä'sthu piisa' xä'sthu yatuh wes vxitçxa' takhe'. Napa txäa wesa' ma'wtkha'w jiiyuuwa'ja's txi' üus ya' akwa'ja's nuuyju'jana u'jwe' le'çxkwe walaana u'jweççxa' txä'sku kajiyu'ju'. Sa't yat na' sek ju'guh vxitxa's ji'pa' txä yaçkathewë'sx ma'ne'ta yat paçji'psa txaha' txä's thegçx pwisnxi'.

Nmehte' paçuh, sek, a'te, ulçey, Nxadx, yu'wala, ikh, fxthüus, fxtüutasx uyu'tha'w txä' le'çxkwe makweytxtha'w uyu' txäatx üste' neexuuna u'jwe' naapa'ka naa psxü'ju'çxa pwisnxi' kajiyu'ju'.



Q'EQCHI' HERRIA

MAIA Q'EQCHI' HIZKUNTZA




QR

TESTUA ETA IRUDIA:
IRIS ESMERALDA AC

Q'EQCHI' HERRIA · Maia q'eqchi' hizkuntza

Etniakideak	850.000 inguru. Hiztunak %50 inguru.
Non	Guatemalako erdialdean.
Hizkuntzaren egoera	Kaltebera (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Academia de las Lenguas Mayas de Guatemala www.almg.org.gt

B'anul! (egun on!), B'antiox! (eskerrik asko!)




GU Q'EQCHI' INDIGENOK

Nire kultur unibertsoa, hegoa, iparra, sortaldea, sartaldea, erritu jantziak, zerua, lurra, natura.

Lur gainean den ororen batasuna eta gizakiaren burmuinean denarena, milaka urteetako ondasun legez, zaintzearen eta hurrengoei irakastearen garrantzia.

LAO' A'J RALCH'OCH' A'J Q'EQCHI'

Li xsutam li Ruuchich'och'
Li q'a qaaxukuutil
i q'a b'aatal re mayejak
chixjunil li kuanjik sahixb'een li
Li choxa li ruuchch'och' ut li q'a sutam
ruuchich'och ree'b'xmaatan li wiink uut
lixkuaankilal



K'ICHE'
HERRIA

MAIA K'ICHE'
HIZKUNTZA





QR

TESTUA ETA IRUDIA:
SALOMÉ HUINAC

K'ICHE' HERRIA • Maia k'iche' hizkuntza

Etniakideak	81.300.000 inguru. Hiztunak %45, gutxi gorabehera.
Non	Guatemalako erdialdean.
Hizkuntzaren egoera	Arriskuan (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Academia de las Lenguas Mayas de Guatemala www.almg.org.gt

Saqarik (egun on!), Maltiox! (eskerrik asko!)



Qa Bantajik

MAIA K'ICHE'EN KULTURA

K'iche' herriaren kultura *Popol Wuj* liburu sakratuan adierazten diren osagaiez bereizten da. *Popol Wujen* gizonen eta emakumeen jaiotza aipatzen da, zein *Ixmukane* amamak arto zuria, gorria, horia eta beltza ehortu zituen, hots lehen emakume eta gizonen belaunaldiak, gure arbasoak Lehen gizakiak sortzean, Zeruaire Bihotza eta Lurraren Bihotza izan ziren sortzaileei eskerrak emateko adierazpenak ere hasi ziren, bizitza, janaria, haizea, euria, mendiak, itsasoak, ibaiak, lakuak, hodeiak eta lur gainean den guztia eskaintze arren.

Gizakia sortu zen une beretik ingurua sentitzeko, hausnartzeko, jagoteko, babesteko eta aintzat hartzeko gaitasunak eman zitzaizkion, orok baitu izateko arrazoia. Horregatik uztartzen dira hizkuntza, uztak, ereiteak eta jarduerak eguzkiarekin, ilargiarekin, izarrekin, argizagiekin eta denborarekin.

LAO' A'J RALCH'OCH' A'J Q'EQCHI'

Le uxera' le qab'antajik tz'ib'atal pa le Popol wuj, jawje' kariqtajwi cher le qatit ixmukane xuke'j le saq, q'an, kyeq, q'eq ixim, le xkoj che Kib'anik, Kiwokik, Kib'itik le enab'e taq qatit qamam.

Kuk' le nab'etaq qamam xchapple'x uloq le malyoxineme che le Ajaw, rumal cher xkiya' le qak'aslemal, le qawa, quk'ya', k'o kiquq', jab', juyub', cho, plo, nima', sutz', ronojel le k'o cho le uwach ulew, xkisipaj le Uk'ux Kaj Uk'ux Ulew Chaqe.

Le Tz'aqol, B'itol xkiya' pa ujolom, uk'ux le achi-le ixoq cher ronojel le k'o pa le uwach ulew nim upatan chaqe rumal la' rajawaxik qaloq'oq'ej, qachajij, qaya' uq'ijol.

Jun uq'inomalchik le qab'antajik are le qatz'yaqb'al, le qach'ab'al, le tiko'n, le ajilab'al q'ij chuquje' le uternexik rij le q'ij, le ik', le ch'umil, le uq'ijb'al le sq'ij, le q'laj. Aretaq la jujun che taq le uje'lal le qab'antajik le ujk'iche Winaq.

Malyox



Carmelina Lix

GURE HERRIAREN MUINA

Orok du bere muina
orok du bihotza
orok du bizia
orori zor zaio begirunea.

Hogei dira muinak
hogei dira bihotzak
hogei dira iturburuak
hogei zor zaie begirunea.


Handia zara zu,
aurkitu zure balorea;
hogei indar horiek
zure arazoaren erantzunak
emango dizkizute,
zoriontasunaren bidea
emango eta erakutsiko dizute.

RUK'U'X QAB'ANOB'AL

Ronojel k'o ruxe'el
ronojel k'o ruk'u'x
ronojel k'o ruk'aslem
ronojel k'o rusanto'il

Juwinäq taq ruxe'el
juwinäq taq ruk'u'x
juwinäq taq ajawa'
juwinäq taqsanto'il

Rat nım aq'ij
takanoj pa awi'
ri juwinäq taq uchuq'a'
ja rije' xtikeya'
rusolik ak'ayewal
ja rije' xtikeya' akikometal



KAQCHIKEL
HERRIA


MAIA KAQCHIKEL
HIZKUNTZA

QR **EGILEAK:**
CARMELINA LIX, MIGUEL ÁNGEL OXLAJ

KAQCHIKEL HERRIA • Maia kaqchikel hizkuntza	
Etniakideak	840.000 inguru. Hiztunak erdiak, gutxi gorabehera.
Non	Guatemalako erdialdean.
Hizkuntzaren egoera	Kaltebera (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Ruk'u'x Qatinamit kaqchikel eskola-sarea, http://onomazein.letras.uc.cl/04_NumeroDescarga/N-AMER/DescargaAM_7.html
Xsaqär! (egun on!), K'amo chawe! (eskerrik asko!)	



Ri Kot



Miguel Ángel Oxlañ

BI BURUDUN ARRANO

Bi buru dituen arranoa gauerdia zaindaria eta muina da, eguerdiaren jagolea eta funtsa da. Bi buru dituen arranoa iragana orainarekin lotzen duen ikurra da, eta oraina etorkizunarekin. Bi buru dituen arranoak iraganaren ezagutza adierazten du, historiarena, jakinduriarena, amatxi eta aitatzien jardura eta zientzia. Gure arbasoek iraganean eratu zutenaren ikurra eta guri orainean garatu gaitezten helarazi digutena.


Horrez gain, bi buru dituen arranoak senideen, gizataldeen eta herrien arteko zubi orekatu eta atsegina eraiki dezagun aholkatzen digu, baita gure inguruan den ororekin ere. Horrela gure ondorengoei ondarea utziko diegu, eurek ere gauza bera egin dezaten hurrengo belaunaldiekin, denon artean iragana-oraina-etorkizuna lotura egin dezagun, kot ikurraren bitartez.

RI KOT

Ri kot rija' ri chajinel chuqa ruk'u'x ri nik'aj aq'a', rija ri chajinel chuqa ruk'u'x ri nik'aj q'ij. Ri kot ruk'u'an jun na'oj ri ka'i ruwäch. Ri nab'ey nub'ij chi ri kot ja ri' ri ximonel richin ri q'ijul kan, ri q'ijul ojer, ri q'ijul xik'o yan kan rik'in ri q'ijul wakami; jak'a ri ruka'n nub'ij chi ri kot ja ri' ri niximön ri qijul wakami rik'in ri q'ijul apon, ri q'ijul petenëq, ri q'ijul jani qak'ulunta. Ri kot ja ri' ri niximon ronojel ri retal qatinamit, ri kib'anob'al, ri ketamab'al kimolon, kisamajin, kipab'an ri qate' qatata' ri qati't qamama' pa kik'aslemal rik'in ri q'ijul wakami, rik'in ri qak'ulwachin wakami pa qak'aslemal.

Po chuqa ri kot ja ri' ri niximon ronojel ri nqasamajij pa tinamital, pa qana'oj, paqach'ob'oj, pa qach'ab'al ri q'ijul wakami, rik'in ri q'ijul jani tiqak'ul ta, rik'in ri q'ijul peteneq chiqawäch o ja ri xti kik'ul ri qalk'ual, ri qiy qaman. Ronojel re' nusipaj chuqa kai' na'oj chiqe. Pa nab'ey, ntel chi tzij chi janila k'atzinel nqaya' ruq'ij chuqa nqakanuj ri retal qatinamit, ri kina'oj, ri kich'ob'oj chuqa ri kib'anob'al ri qate' qatata' ri qati't qamama', ronojel ri xkimöl, ri xkipab'a', ri kisamajij pa ri q'ijul kan, richin runuk'ik ri qak'aslemal chupam ri q'ijul wakami; richin yojruto' paqak'aslemal, richin nqil ri saqb'e, ri qayayb'al richin ri ütziläjä k'aslemal.

Pa ruka'n, ntel chi tzij chi, wi nqaya' ruq'ij, wi nqakanuj, wi nqil, wi nqasamajij chupan ri q'ijul wakami ri ojer rub'eyomel qatinamit, ri xik'o yan, ja ri' xkojruto' richin nqapab'a', richin nqasamajij, richin nqab'an jun k'aslemal jeb'el richin ri q'ijul apon, ri q'ijul jani tiqak'ul, ri q'ijul peteneq chiqawäch. Ruma k'a ri' janila nim ruk'ojlemal ri kot chupam runa'ojil ri qatinamit, chupam ri kina'oj ri qate' qatata' ri qati't qamama'. Ruma chu qa ri' janila nik'atzin chi nqetamaj ruk'u'x re jun na'oj re' richin nqapoqonaj, richin nqakusaj, richin nqayäk, chuqa richin nqak'ut chike ri epeteneq chqij.




ARTOA GARA

Marraskian giza aurpegia duen artaburua ikus daiteke. Horrek gu guztiok artoa garella adierazi nahi du. Bere gainean ilargia eta eguzkia daude, bere besoetan haizea, ura, sua eta lurra islatzen dituzten ikurrak daude. Osagai hauek guztiak gure maia kulturaren pentsaeraren adierazgarriak dira.

IXI'IMO'ON

Ti' le wooja, je'el u páajtal a wilik jum p'éeel xixi'im yéetel u yich máak, tumen táan u ye'esik to'one' xixi'imo'on, tu yóok'ol le xixi'ima' ti' yaan x ma-uj yéetel k'iin, tí u k'abo'obé ti' yaan kamp'éeel woojo'ob, u k'aat u ya'ale, iik' ja, k'aak' yéetel lu'um, lelo'oba' ku ts'áak a na'at bix u tuukulil k-miatsil maaya kaaj.



MAYAT'AAN HERRIA MAYAT'AAN HIZKUNTZA



QR **EGILEAK:**
DANIELA CANO, MARCOS PECH

MAYAT'AAN HERRIA • Mayat'aan hizkuntza	
Etniakideak	900.000 inguru. Hiztunak %65, gutxi gorabehera.
Non	Mexikoko Yucatanen eta inguruetan.
Hizkuntzaren egoera	Arriskuan (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Yúuyum elkarteak badu mayata'anez ari den irratia, www.yuuyum.org
Ma'alob k'iin! (egun on!), Níib o'olal! (eskerrik asko!)	



BIDE ERTZEAN

Nire seme-alabekin nago bide ertzean eserita.

Zera galdetu didate:

- Zergatik ezin dugu oinez ibili?

Zera itauntzen didate:

- Zergatik ezin gara sartu?

Nire aurpegia gorritu egiten da, nire bihotzaren taupadak azkartu egin dira, burua bihurtu dut, negarra darit.

- Aita, ez dut ulertzen.

- Ezta nik ere, seme.

Lurrok lapurtu zizkiguten,
natura suntsitu zuten.

Non da elkarrekiko bizimodu?

Non da bizimodu orekatua?

Nire seme-alaben ondoan eserita,

kapelaren hegala behekitu dut,

arnasa hartu dut,

begiak itxi ditut,

ez dut hitzik.

Hiltzen ari naiz, hiltzen ari da, hiltzen ari gara.

TU JÁAL BEJ

Kulukbalen yéetel in paalalo'ob tu jáal bej, Ku k'áatikteno'ob:

- Ba'axten ma'atáan u béeytal k-xímbal, Ku ka'a k'áatikteno'ob:

- Ba'axten ma'atáan u béeytal k-okol,

Ku chaktal u táan in wich In puksi'ik'ale' lilik'kil u meyaj

Kin pi'ik'tik in pool

Táan u ch'eeneb u ja'il in wich

- Ma'atáan in na'atik in yuum,

- Ma'atáan in na'atik in paalil,

Okolta'abto'on le k'áaxo'oba',

Jáawsa'ab le ya'ax kuxtala',

Tu'ux yaan le paklan kuxtala',

Tu'ux yaan le múul kaajtala'.

Kulukbalen tu tséel in paalal,

Kin wéensik in p'óok

Kin ch'a'ak in wiik'

Kin muts'ik in wich

Mina'anten t'aan

Kin kíimil, ku kíimil, k-kíimile'ex.

Nire herrian, Tzinacapan deitzen den eskualdean, baditugu gure kultura, tradizioak, ohiturak eta jakituriak. Jaiak antolatzen ditugu gogoetak bizi izateko eta berpizteko, gaurkoak zein antzinakoak. Herriko patroia hainbat dantzarekin omentzen dugu, hala nola, *migelekin*, *quetzalkeekin* edo hegalariekin. Dantza bakoitzean badira jakituriak eta aberastasunak, soinueta, pausoetan, musika tresnetan eta jantzietan. Gure jantzi tradizionalak ederrak dira, zuriaren gainean eskuz eginiko hainbat joskera koloretsu egiten baititugu. Gerrikoak ere egiten ditugu ehundegietan eta koloretsuak diren *huipilak* (brusak) bordatzen.

Arbasoen janariei eusten diegu. *Kalyatol* tokiak ere gordetzen dugu, non jakituriak biltzen diren eta bisitariak hartzen eurekin hitz egiteko. Jakituria ematen diguten elkarrizketak bertan metatzen direla uste dugu.




Lizbeth Sánchez

ARTOA

Txikia zara nire esku latzek babesten zaituzte lurrarekin. Inork ez zaitu sortzen ikusi erne zara bizirik zara hazi egin zara elikatu egin nauzu.

TAOL

Ti tsitsiki tsin no mauan chakantike mits mauits katalia itech in taltikpak Amo nakin mits itaj ijuak tiyoli tiyoltok tixuatok timoskaltij



NAWAT HERRIA NAWAT HIZKUNTZA



QR

EGILEAK:

LIZBETH SÁNCHEZ, MICAELA GARRIDO

NAWAT HERRIA · Nawat hizkuntza

Etniakideak	1.400.000 inguru. Hiztunak %55, gutxi gorabehera.
Non	Mexikon sakabanaturik, bereziki erdi aldean.
Hizkuntzaren egoera	Arriskuan (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Pueblako Cuetzalan-go Tosepan Titataniske kooperatibaren eskola (murgilketa eredua) eta irratia (nawatez eta tutunakuz) www.tosepan.com

Tanesik! (5:00-8:30) / Tajkajtik! (8:30-11:30) (egun on!),
Tasejkatik! (eskerrik asko!)

Namech tajpalouaj ni maseval Nawat, ni nimij Mexiko Ni nemij se xalal konet tein kipia miak taman mauskayot uan Ki nechikoua miak tanemililis. Trinacapan Ni teuantit itech in se nechikol Kampa semi tik ixmatij kenu iluia ika onkan itech to nemilis miak taman ixneskayot.

Tikpia iluimej tein ixnesij in to teyekankej totlotsi. Uan miak taman miltotianij uan miak tapoualmej tein tech kauilijkej to ueyj kau nemilis, kkampa no tik nextia in totaken, no nesij in naui taman onkayan.

Itech in kaltsi (kali) nesij in kalyolot, tein kinechikouaj mian nemilis uan tanemilis tein tech kauilij kej uan kauilijtiouij tein okachi tatajmej.



Micaela Garrido

EHIZAN

Arbasoek diote Ostadarra irteten denean euria eta eguzkia batera direnean ehiza harrapatzen dela.

TINECH YOLCHIKAUTOK

Tech iluia totatajuan ne Keman Kijtouaya Ke in ixkosantsi nesij Keman kioui uan tonaj ijuak mo namiktia in Masat

MAIRU ZUBIGILEA

Mendi kasko bat osatuz daude harriak pilatuta pagadiaren ertzean, bata bestearen gainean, axolagabe utzirik baleude bezala. Ilargiaren laztanak argitzen du harri pilaz osaturiko tontorra eta harriek sorturiko itzal ahula pagadian zehar galtzen da. Gauaren arnas baketsua eten egiten da etengabe harriok bata bestearen kontra kolpatzen direnean. TAUNK! TAUNK! Mairu bat ari da harrespiletik banan banan harriak hartu eta izarrez beteriko zerura doala dirudien zubi bat eraikitzen.

- Zertan ari zara ba?-

- Ez al duzu ikusten?- erantzun du mairuak zubiari beste harri bat gehitzen dion bitartean. TAUNK! Aurpegia apenas ikusten zaio, ile luzea baitu eta hain da altua kasik ilargiaren argi motela ez baita garaiera horietara iristeko gai.

Burua jaitsi eta bere lanean jarraitu du. Harri pilatik harri bat hartu eta zubiaren gora darama zubiaren beste pieza batean bihurtuko den harri hori.

TAUNK! Indar handiz baina ez sinesteko zehaztasunarekin pausatu du harria behar duen tokian.

- Nora doa zubi hau? Oso luzea da eta ezin dut ikusi non bukatzen den. Zergatik ari zara eraikitzen zubi hau, behean ez baldin badago errekarik?- Begiradarekin jarraitu du, baina ortzi-mugarekin nahasita ez zaio bukaerarik ikusten zubiari.

- Zubi honek errekarik eta ibaiak bakarrik ez, itsaso zein ozeano eta mendirik altuenak ere zeharkatzen ditu. Urrutiko herrietara doa, beste hizkuntza batzuetan mintzo diren jendeengana.

Haiekin aspalditik genuen harremana berreskuratzeko bidea da zubi hau.-

Mairuak beste harri bat hartu eta, TAUNK!, jarri du bere tokian. Zubia bukatzeaz dago, bete beharreko espazio huts gutxi daude jadanik.

-Baina, ez al zara konturatu harriok mairu baratz batetik hartu dituzula? Borobilean zeuden denak ongi jarriak eta...

-Nola ez nintzen konturatuko?- moztu du mairuak. -Neronek eta nire kideek eraiki genuen aspaldi baratz hau. Baina azken garaietan ez zen ernetzen bizirik baratz



hauetan. Berrito ere baratza loratu dadin harriak biziz bete behar dira osterera.

-Biziz bete? Baina borobil bat osatzen zuten harriak baino ez ziren eta!

-Borobil bat?- Harritu da mairua.- Harriak borobilean zeuden bai, baina espazio huts bat sortzen zuten harriek.


Hustasun horrek gorpuzten zuen gure baratza eta harrien bizitzak zentzua eman. Hustasunak betetzen zuen baratza eta kosmosarekin eta izarrekin harremanetan jartzeko bidea zen. Harriek bizitza galdu dutenetik ez dute hustasun hori eraikitzerik. -TAUNK! Beste harri bat kokatu du zubiaren.- Hamaika herrietara doan zubi berri honekin, berrito ere beteko dira bizitzaz gure harri zaharrak. Pozik nabari da mairua hizketan eta zubiari adi begira geratu zaio.

Harriak jasotzeari utzi dio, badirudi bukatu duela. Azken errepasso txiki bat eman dio zubiari begiradarekin. Dena bere tokian dagoela adierazten du buruarekin baiezko bat eginez. Bukatua dago azkenean.

-Aizu! Ez joan oraindik! Begiratu hor! Eta begira ere horra! Toki batzuetan harriak jartzea falta zaizu!

Mairuak ez dio jaramonik egin eta ekira begira dago. Mendien artetik nabari da jadanik egunaren lehen printzak ikusteko ez dela denbora asko falta.

-Begiratu ezazu hara. - Erantzun dio mairuak patxadaz, laster behar duen egunsentia erakutsiz. -Egunak aurki argituko du eta zubia zeharkatzeko ez dago arriskurik. Toki batzuetan harriak jartzea falta da, egia da, baina gure herriko zubiak inoiz ez dira bukatuak izan eta hala ere zubiak dira. Segi aurrera nahi baduzu, eta bete ezazu hutsik dagoena. Hala ere, gogoratu zenbaitetan ezer eza ez dela zerbait faltan izatearen parekoa, den horri forma emateko modua baizik. Dena eskura izateak ez du esan nahi zoriontsuago izatea. Ez da atsekabe handiagorik dena daukan eta hutsik sentitzen denarena baino. Hortaz, utziozu tarte hustasunari eta bete ezazu zure bizia. Zoaz bada, eta bete itzazu harriok biziz berrito ere hustasunari forma eman diezaioten!



EUSKAL HERRIA

EUSKARA HIZKUNTZA



QR

TESTUA: JULEN LARRAÑAGA
IRUDIA: MIKEL MENDIZABAL

EUSKAL HERRIA • Euskara hizkuntza

Etniakideak	3 milioi inguru. Hiztunak %33, gutxi gorabehera.
Non	Euskal Herrian.
Hizkuntzaren egoera	Kaltebera (Atlas UNESCO, Moseley 2010).
Ekimenak	Zein jarriko zenuke zuk, irakurle?
Egun on! Eskerrik asko (mila esker, esker mila, esker(rik) anitz!)	

ATLAS DE LAS LENGUAS DEL MUNDO EN PELIGRO (Moseley 2010, UNESCO) Arrisku-mailak (Atlas UNESCOren arabera, 2010, Moseley)

- **Kaltebera:** haur gehienak mintzatzen dira, baina baliteke hizkuntzak zenbait arlotan ez izatea behar besteko presentzia.
- **Arriskuan:** haur gehienek ez dute etxe-hizkuntza gisa ikasten etxean.
- **Arrisku larrian:** aiton-amonek eta aurretiko belaunaldiek hitz egiten dute; gurasoen belaunaldiak uler dezake hizkuntza, baina ez dute hitz egiten ez euren artean ezta ere haurrekin.
- **Arrisku kritikoa:** hiztun gazteenak aiton-amonen belaunaldikoak dira, eta horiek ere erdizka.
- **Galduta:** hizkuntzak ez du hiztunik.